

KANALAK



Gure aire gabeko gurpilen proposamena bezeroengana iritsi dadin, komunikazio, banaketa eta salmenta kanal eraginkor batzuk erabiliko ditugu.

Helburua gure bezeroek produktuaren abantailak ezagutzea eta erosketa prozesua erraztea da.

1. KOMUNIKAZIO KANALAK

- **Sare sozialak:** (Instagram, LinkedIn, YouTube, TikTok): Produktuaren ezaugarriak, berrikuntzak eta abantailak erakutsiko ditugu bideo eta irudi erakargarrien bidez.
- **Publizitate digitala:** (sare sozialetan iragarkiak jarri) Sare sozialetan iragarkiak jarriko genituzke, gure dendaren web-horriara bideratzen duen link batekin.
- **Prentsa eta aldizkariak:** Automozio eta mugikortasun jasangarriko aldizkarietan artikulatu eta elkarrizketak argitaratzea ideia ona izan daiteke, gure enpresa ezagutarazteko.



2. BANAKETA-KANALAK

- **Salmenta zuzena:** Fabrikatzaile eta enpresa handiekin akordioak (automozio, bizikleta edo makineria sektorekoak).
- **Banatzaille eta denda espezializatuak:** Gurpilak banatuko genituzke mugikortasuneko denda eta taileretan (bizikleta dendak, auto tailerrak...), bezero partikularrek erosteko aukera izan dezaten.
- **Gure plataforma propioa:** Webgunearen bidez salmenta zuzena, konfigurazio eta eskaera pertsonalizatuekin.

